

# IAZKO HEZURRAK

UNAI ELORRIAGA

narratiba  
**Susa**

**2029**  
2029

Karmele Alapont · Alai Ugalde  
Aixerrota BHI, 15-16

# Aurkibidea

Unai Elorriaga .....	3
----------------------	---

Sarrera .....	4
---------------	---

## *lazko hezurak*

- Kokapena ..... 4
- Gaia ..... 5
- Argumentua ..... 5
- Gertakizun nagusiak ..... 5
- Egituraketa ..... 6
- Pertsonaiak ..... 6
- Baliabideak ..... 7
- Iritzia ..... 8

Bibliografia-Webgrafia .....	10
------------------------------	----

## UNAI ELORRIAGA

Unai Elorriaga López de Letona 1973ko otsailaren 14an Bilbon (Bizkaia) jaiotako euskal idazlea eta itzultzailea da. Euskal Filologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean eta itzultzailea da lanbidez Labayru Institutuan. Gaur egun, bete-betean emana dago literaturari.



Aurretik, literatur klaseak eman izan ditu eta literatura itzulpengintza irakatsi era berean. Testugintzan ere jardun eta gero, literaturari buruzko hainbat artikulua argitaratu ditu, esate baterako: *Idatz & Mintz*, *Aizu!*, *UK*, *Enseiukarrean*, *Deia*... Espainiako Sari Nazionala irabazi ostean, *El Pais*, *El Mundo* eta *La Vanguardia* egunkarietan kolaboratu du, besteak beste. Honez gain, hitzaldiak emateko parada eskaini zion: Madril, Segovia, Merida, Oxford... izan dira bere mintzaldien testigu zuzenak.

*SPrako tranbia*-k, euskaraz idatzitako eta 2001ean Elkar Argitaletxeak argitaratutako eleberriak, arrakasta itzela lortu zuen Narratibako Nazio-saria irabaztera eraman ziona eta bigarren idazlea izan zen euskaraz idatzitako eleberri batekin saria irabazten, 1989an Bernardo Atxagaren ondoren. Oraintsu, 2015ean, irabazi du Kritikaren Nazio-Saria bere azken eleberriarekin, *Iazko Hezurrak*, eta finalista bihurtu da berriro, Espainiako Sari Nazioaleko Narratiban.

XX. mende hasierako egileak ditu maiteen. Joan den mendeko 20ko hamarkadako idazleek pentsatu eta eragin zutena gustatzen zaio. Auto bati buruz idatzi zuen ipuin bat gogoratzen du idatzi zuen lehena, bere ibilbide literarioan. 2002an Igartza Beka lortu zuen, *Van't Hoffen ilea* nobela egitasmoaren sorkuntza laguntzeko beka hain zuzen ere.

## SARRERA

*lazko hezurak* Unai Elorriagak idatzitako eleberria da, lehen aldiz 2014an argitaratua. Elorriagak argitaratutako bosgarren eta azken eleberria da Kritiken Nazio Saria irabazi duena.

Bost urte eman ditu Elorriagak *lazko hezurak* idazten. *Refranes y sentencias* liburuan irakurritako esaera zahar bat du oinarri lazko hezurak tituluak: "Igazko asto hilak aurten lurruna". Hasieran *lazko astoak* titulua zuen pentsatua, eta geroago *lazko txakurak* –txakur asko ageri baita nobelan–, baina bi izenburu horiek baztertu egin zituen, tituluan animalia jakin bat aipatzeak ekar zitzakeen konnotazioen beldur. Horregatik erabaki zuen azkenean *lazko hezurak* titulua ematea nobelari. Liburuan maiz agertzen dira hezurak indarkeriazko ekintzekin lotuta.

Elorriagaren eleberriak Irene Arrias protagonistaren bizitza du hari nagusi, 1971n Algortan jaio zenetik 2015era arte. Baina hari nagusi hori gero eta zabalagoa den "kiribil batek" inguratzen du, Elorriagak azaldu duenez, Irene Arriasen bizitzako pasarte nagusien kontaktarekin batera denboran pasarte horiekin bat egiten duten indarkeriazko ekintzen berri ematen baita. Euskal Herria eta Ruanda. "Indarkeriari buruzko gogoeta bat" da liburua, baina Elorriagak ez du testuan indarkeriari buruzko ondorio idatzirik ematen. Ondorioak irakurleen esku utzi ditu.

Formari dagokionez, "prosa narratibo berezia eta diferentea" eskaini du Elorriagak obra berrian, aurrekoetan bezalaxe, Gorka Arrese Susa argitaletxeko editorearen ustez, eta Askotariko pasarteak aurkituko irakurleak: "Baditu une narratibo-nobeleskoak, baditu ipuinezkoak, baditu kronikaren traza dutenak, baita saiakerarena dutenak ere...".

## KOKAPENA

Lehen esan bezala, istorio honek 1971tik aurrera gertatutako indarkeriazko ekintzak narratzen ditu. Kontakizunak 44 urteko iraupena du (1971-2015), Irene Arrias jaio zenetik bere bizitzan zehar biolentziaren inguruko hausnarketa agerian utziz. 1971ko urtarrilean, protagonista jaio zen egunean, Idi Amin Dada jeneralak Ugandan estatu-kolpea abiatu zuen egunean eta Glasgowko agintari baten etxean bonba batek eztanda egin zuenean. Hurrengo hamarkada bitartean (70eko hamarkadatik 90eko hamarkadara) sufritutako indarkeria kontakizunak aurkezten ditu.

Abiapuntu moduan Irene Arrias fikziozko protagonistaren jaiotza adierazten da, Algortan. Herria Bilbo aldeko auzo-herria izanda, ETAk fenomeno sozio-politiko armatuak utzitako arrastoen lekuko da. Ireneren bizitzaren kronologia kontuan harturik, azken mendeko munduan gertatutako hilketak, atentatuak, Ruandako genozidioak, Errusiako Iraultza, 36ko Gerra, etab. azaltzen dizkigu.

## **GAIA**

Irene Arriasen bizitzaren kronologian oinarrituta, mendean zehar munduko indarkeria gertaeren hausnarketa sakona.

## **ARGUMENTUA**

Irene Arrias, 70eko hamarkadan jaioa, Algortako emakumea da, gerraz eta biolentziaz inguratutako hazi dena: 36ko Gerra, Errusiako Iraultza, ETArekin borroka eta haren aurkakoak, besteak beste.

Biolentziaren gaiaz obsesionatuta bizi delarik, bere bizitzaren eta bere inguruko gertakari bortitzak erabat lotuta agertzen dira, indarkeriaz inguratutako sentiarazten dutenak. Kezkaz beteak, erasoak, torturak, hilketak, exekuzioak, sarraskiak, etab. bizi dituen hurbiletik. Horrek, indarkeriari erreparatzeko eta arakatzeko joera sortzen dio, hala nola, liburuetan, egunkarietan, Interneten... Azken finean, dena odol pilaketa bat da, hezur lurrunduak. Ireneren momentu bitalak biolentziak markatuak dira, munduko edozein lekutan edonoren istorioa bezala. Protagonistaren istorioa, beraz, gizakion zainetan daramagun deabruaren hausnarketa sakona da, Ireneren bizitza ardatz hartuta, indarkeria-momentu desberdinen kontaketa.

## **GERTAKIZUN NAGUSIAK**

Liburua bi zatitan bereiz daiteke, alde batetik Irene Arriasen bizitza, eta bestetik indarkeriarekin lotutako gertakizun anitz; hala nola: Errusiako Iraultza, Gerra Zibila, Lehen eta Bigarren Mundu Gerrak..., baina garrantzi handiena dutenak Ruandako genozidioa eta ETArekin zerikusia dutenak dira.

Ireneren bizitzarekin zer ikusia duen gertaera garrantzitsuena bere bahiketa da, indarkeriari buruz dakien guztiagatik bahitzen dute. Lanean dagoela bere nagusiak deitu egiten dio etxera ez itzultzeko esanez, Irene hainbat egunetan ezkutututa bizi da Algortan zehar, baina aurkitu egiten dute Luis Alzaolak eta

Sarriak. Etxera batera eramaten dute eta bertan bere pentsamenduei buruzko galderak egiten dizkiote, konortea galtzen duen arte.

Nobela osoan zehar Ruandari buruz eta ETari buruz hitz egiten du eta bi egoera horiek konparatzen ditu behin eta berriz. Espainian eta Euskal Herrian, baina gehienbat Algortan gertatutako ETaren hainbat ekintza azaltzen ditu eta Ruandako genozidiokoak pareak komentatzen ditu, munduko toki desberdinetako indarkeria ikustarazteko. Hirugarren atalean, "Beti da gauza bera; beraz, beti da desberdina." dio narratzaileak. Horrekin adierazi nahi du toki desberdinetan gertatzen diren hilketak eta indarkeria egoerak ez direla hain ezberdinak, aurretik aipatutako Ruandako genozidioa edota ETaren hainbat atentatu eta horren inguruko indarkeria bezala.

## EGITURAKETA

Nobela lau zati nagusitan dago banatuta. Lehengo zatian Irene Arriasen haurtzaroa kontatzen du; bigarrenean, gaztaroa; hirugarrenean, helduaroa; eta laugarrenean, indarkeriarekin duen obsesioak sortzen dion egoera bat azaltzen da. Nahiz eta protagonistaren bizitza liburuaren oinarria izan, Ireneri hainbat gauza gertatzen zaizkion aldi berean, munduko beste toki askotan gertatu diren indarkeria egoerak azaltzen ditu.

Lehenengo hiru zatien amaieran, beste herrialde batzuetako eta indarkeriarekin zerikusia duten bi edo hiru narrazio labur agertzen dira. Kontakizun horiek ez dute zerikusirik Irene Arriasen istorioarekin. Adibidez, lehenengo zatiaren amaieran *Ilaretan*, *Bodrogiren zuhaitzak* eta *Umeen alde* narrazioak agertzen dira.

Unai Elorriagak egitura lineala erabili du. Ireneren bizitza modu lineal batean azaltzen du, baina askotan flash-backaz baliatzen da aurretik aipatutako zerbait berriro aipatzeko.

## PERTSONAIAK

Iazko hezurak obran, protagonista oso garrantzitsua da istorioaren garapenerako. Garai hartako gizartera oso egokituta dago, bere bizitzan oinarrituta azaltzen direlako garai hartako egoera desberdinak. Aipamen berezia behar duten pertsonaiak hurrengoak dira:

### **Irene Arrias**

Pertsonaia nagusia da, bere bizitza kronologiatzat hartuta dagoena. Jaio zenetik 44 urtera artean bizi izandako momentuak eta gorabeherak adierazten dira eta, era berean, haurra zenetik emakume baten mentalitatea lortu zuen arte.

Bere bizitza-bidaiaren bitartez ezagutuko ditugu munduan zehar gertatzen diren biolentzia egoerak. Gutxinaka pertsonaia definitzen joaten da, gerraz inguraturik bizitzearen eraginez biolentziaren inguruko obsesioa izatera eraman diona eta azkenik, lehen pertsonan bizitzera bultzatuko diona. Irenek bortxan du jarrita arreta eta biolentzian oinarrituriko ikuspegitik begiratzen du mundua indar eta biolentzia horrek berari ere harrapatuko dion arte.

Bigarren mailako pertsonaia asko ere badaude, baina Unai Elorriagak ez die aipamen handirik egiten; adibidez:

- Begoña Sasieta: Irene Arriasen ama.
- Ibon Sales: Ireneren senarra.
- Ireneren alaba
- Luis Alzaola eta Sarra: Irene bahitzen dituzten gizonetako bi.
- Imanol Sarasua, Itziar Gereka, Joana Biurrun...: Ireneren gaztetako lagunak.
- Irenek kalean aurkitzen duen umea.

## BALIABIDEAK

Istoria narratzaile orojakile batek kontatzen du. Pertsonaien pentsamenduak ezagutzen ditu, adibidez, “erabaki zuen ez zuela gehiago irakurri behar, ordua gainean, segundoak, minutu bat beharbada”. Hainbat deskribapen egiten ditu, gehienak laburrak eta zehatzak dira (“Irogailu bi ditu eraikinak, normalean baino abiadura handiagoa hartzen dutenak, zabalak, metal kolorekoa. Ikaragarri garbi daude eta berri itxura daukate.”).

Nahiz eta ez oso ugariak izan, elkarrizketak ere badaude. Bai estilo zuzenean eta baita zehar estiloan. Estilo zuzenean, adibidez:

- *Nola galdu duzu?*
- *Tunelean. Tiroketan.*
- *Jende asko hil zen. Hori aditu dut –esan nion.*
- *Ana ez –esan zuen.*

Eta zehar estiloan:

*Kontatu zion Olgak Sabina amonaren neba nagusiak Varsovian egiten zuela lan...*

Narratzaileak nobela osoan zehar “berdin dio, ez dio berdin” esamoldea erabiltzen du, honekin bere ikuspuntua eta garrantzi gutxi dutela diruditen arazoei buruz irakurleari pentsarazi egiten dio.

## IRITZIA

Irakurri dugun obra hau arrakasta handikoa izan dela esan daiteke. Gure iritziz, arreta berezia behar duen gertaera da, izan ere, nobelak Euskal Herrian gertatutakoak eta oraindik askoren oroimenean dirauten ekintzen berri ematen digu modu original eta oso zehatz batean. Gauzak horrela, emakume baten bizitzaren bilakaera modu kronologiko batean biziko dugu istorioa, espero ez den amaiera batekin amaituko dena.

Obra oso aberatsa dugu esku artean, hainbat baliabide estilistiko aurki ditzakegulako eta, era berean, munduko gertaera bortitzez informazio jakingarria ematen digulako modu konplexu batean. Baliabide horiek elkarrizketak nahiz esamoldeak izan daitezke, liburua aberasteko erabili direnak. Horiakin baliatuta, irakurleari arreta berezia eskatzeko erabili dira gehienbat, informazio desberdinak azkarregi eta lar bateratu kontatzen dituelako. Datu horiek guztiek azalduko zaizkigu era berezi batean, emakumearen eta munduko gertaeren artean erlazio zuzenean.

Beste alde batetik, liburuko protagonistak aipamen berezia behar du. Hau da, garai hartan bera bizi zen Getxo inguruan, hainbat eta hainbat arazo politiko zein sozial zeuden eta, ondorioz, gertaera horiek guztiak berak zuen ikuspegitik kontatzen ditu. Bere bizitzaren kronologian oinarrituz, beste munduko lekuetan gertatzen ziren gertakariekin lotzen ditu, modu zuzen batean erlazionatuz. Horrek irakurleari informazio eta datu anitz eskaintzen dizkio hurbiltasuna sortuz. Hain dira asko ematen dituen datuak ezen irakurlea guztiz kokatu daitekeen istorioaren garaian bertan.

Datuak emateaz gain, gure idatzizko eta ahozko tradizioan guztiontzat ezagunak diren kantuetan indarkeriaren adibide ematen digu; adibidez:

*Din-dan!  
Nor hil de?  
Peru zapatarixe...  
Zer egin dau?  
Pekatu,  
auzoko txakurre urketu...  
Hori baino ez badau egin,  
biherko jako parkatu. (268)*

Honekin, berriro ere, indarkeria eta bortxa gure inguruan betidakin eta konturatu gabe behin eta berriz aipatzen ditugula ikusarazten digu Unai Elorriagak.

Hizkuntza aldetik, ez da ulertzeko zaila den liburu bat. Nahiz eta batzuetan esaldi luze eta korapilatsuak erabili, informazio asko dutelako; gehienetan esaldiak laburrak eta ulertzeko errazak dira. Horrek irakurleak aurretik aipatutako informazioan ahalik eta arreta handiena ipintzea ahalbidetzen du. Gainera, esaldi laburrek bizitasuna ematen diote liburuaren hainbat zatiri.



Tokien eta gauzen deskribapenak luzeak eta zehatzak dira gehienetan nobela osoan zehar:

*Alangobarriko etxean, hallean, kaleko atetik sartu eta segundo bira, idazmahai estu bat. Bost tiradera, lau txiki eta luze bat. Tiradera txikietan giltzak, Begoña Sasietaren etxeakoak, bulegokoak, erabili ezin diren beste batzuk, inongo sarrailatakoak ez direnak orain, bota ez zirenak bota bota behar zirenean, forma ederrekoak bi Ireneren irudietan, guztiak alabarenean. Erreminta bat tiradera luzean, erdi ugertua, amaren etxetik ekarri zuena Irenek, aitarena beharbada... (301)*

Arestian esan bezala, liburu oso aberatsa, originala eta zehatza dugu esku artean. Hori baieztatzeko neskata baten bilakaera hartzen da oinarri gisa garaiko egoera azaltzeko.

Hala ere, liburu honek baditu bere alde txarrak; hasieran aipatu dugun bezala, irakurketa sakona eta arreta berezia eskatzen du. Hori horrela, erritmoa geldiarazi egiten du, asko direlako ematen dizkigun datuak. Egia da, gertaera horiekin guztiekin guztiz kokapen zehatza eskatzen duela, baina hain datu gehiegirekin oso zaila egiten da guztiaz konturatzea. Gainera, nahiz eta bi gertakari nagusitan zentratu, beste ekintza asko aipatzen dira eta horrek astun bilakatzen du istorioa. Irakurketa sakona eta hausnarketa berezia behar duen obra denez, irakurtzeko egun batzuk eskatzen ditu, ez da pare bat eguneko gauza. Era berean, idazleak irakurlearen interesa piztu ez ezik istorioan guztiz murgiltzea ere lortzen du. Protagonistaren kezkak azalduta, irakurleari sentiarazteko gaitasuna ere badu.

Eleberriak, behin irakurrita, garaiko egoera konplexuaren hausnarketa egitea lortzen du.

## **BIBLIOGRAFIA**

*Iazko hezurak.* Unai Elorriaga. Susa.

*Euskal Hiztegi Entzilopedikoa.* Klaudio Harluxet fundazioa.

*Elhuyar hiztegia.*

## **WEBGRAFIA**

- <http://susa-literatura.eus/kat2.html>
- [http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt\\_el/index.asp](http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp)
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/il-hiztegitxoak/il-txokoa/iazko-hezurak/iazko-hezurak.pdf>
- <http://euskaljakintza.com/>
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>